Emakumeentzako

# Jabetze ESKOLA

Arrasate

2012ko Iraila-Abendua

ikastaroak·cursos

## EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA

Emakumeentzako Arrasateko Jabetze Eskola indartsu dator 2012ko irail honetan ere.

Gure erronka, herriko emakumeen kezka eta interesei erantzuteaz gain, begirada kritiko bat landu eta gure errealitate pertsonal, sozial eta politikoari buruz hausnartzea ere bada. Bide horretan feminismoak egin duen ekarpenaz jabetu eta haren berri jasotzeko parada ere eskaini nahi du Jabetze Eskolak.

Eskola honek, emakumeei, gizarteko esparru ezberdinetan eragiteko baliabideak eskaini nahi dizkie beraien parte-hartze soziopolitikoa indartzeko.

Esan gabe doa, ateak parez pare zabalik ditugula herriko eta inguruko emakumeentzat. Zatoz, eta esperimentatu!

## Argibideak:

**Izena emateko epea:** irailaren 24tik 28ra. Ikastaroak orokorrean, besterik adierazi ezean, urriko lehenengo hastean hasten dira. (geroago martxan jartzen diren ikastaroen kasuan, bakoitzean zehaztuko da epea). Ikastaroak **Emakume Txokoan** egingo ditugu, besterik adierazi ezean.

**Matrikula:** Plaza mugatuak. Izena emateko, inprimakia bete behar duzu Emakume Txokoan.

**Ordainketa:** Emakume Txokoan eskuratuko duzun kontu zenbakian.

**Izena emateko ordutegia:** Astelehenetik eguenera arte: goizean 11:00 - 13:30 eta arratsaldean 15:00 - 19:00. Egubakoitzean: goizean 10:00 - 14:00

**Haurtzaindegi-zerbitzua:** ikastaroetan parte hartzeko haurtzaindegia jarriko dugu, aldez aurretik abisatuz gero.

**Argibide gehiago** Emakume Txokoan. **Telefonoa:** 943 79 41 39

**emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net**
**www.emakumetxokoa.com**

IKASTAROA

## 01 KOMIKIGINTZA ETA JABEKUNTZA IKASTAROA

**artea, umorea eta adierazpen propioa askatuz**

**Irakaslea:** Ainara Azpiazu Aduriz "Axpi"
**Noiz:** ostegunetan (8 saio) / **Ordutegia:** 19:00-20:30
**Hizkuntza:** euskara / **Matrikula:** 30€/35€

**Ikastaroaren deskribapena:**
Komikia gure burua adierazteko tresna bezala erabiltzea da ikastaro honen xedea. Batetik, emakumeek egindako lanen erreferenteekin gozatuko dugu. Bestetik, tailerra praktikoa izango da gehienbat, gure istorioak gure modura kontatzeko aukera izango dugu, barrenak askatuz eta marrazketak eskaintzen duen irekitasunaz gozatuz.
Marrazketa, pintura, umorea, …
*Ez da beharrezkoa marrazten jakitea, gogoko izatea baizik, edozeinek ikas dezake marrazten!!!*
*Ainara Azpiazuren bloga ikusi nahiez gero, sartu honako webgune honetan: (www.ainaraxpi.blogspot.com).*

IKASTAROA

## 02 IDAZTEN TREBATZEKO IKASTAROA

**Irakaslea:** Iratxe Retolaza Gutierrez
**Noiz:** asteazkenetan (8 saio)
**Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** euskara
**Matrikula:** 30€/35€

**Ikastaroaren deskribapena:**
Literatura eta sormen-ariketak nork bere burua ezagutzeko, garatzeko eta astintzeko bide aproposa dira. Sormen literarioan murgiltzeko, bi urrats egingo ditugu. Lehenik, euskal emakume idazleek historian zehar garatu dituzten zenbait sorkuntza-lan irakurri eta arakatuko ditugu, zenbait literatura-lan eredugarri eskura izateko, eta baita geure irakurle-jardunean trebatzeko ere. Bigarrenik, sormen-ariketa batzuk proposatuko ditugu.

IKASTAROA

## 03 BATUKADA FEMINISTA

**Irakasleak:** Ainara Sarasketa Alberdi eta Arantxa Vicedo Rubio
**Noiz:** larunbatetan (8 saio) / **Hasiera:** urriaren 20an
**Ordutegia:** 11:30-14:00
**Hizkuntza:** euskara eta gaztelania
**Matrikula:** 30€/35€

**Ikastaroaren deskribapena:**
Zein da helburua? Hainbat musika-tresna jotzen ikasteaz gain, gozatzea, emakumeon artean harremana izatea, talde-lanean eta elkarrekin ikastea, irudimena lantzea, sortzea, gidaritza hartzea, musikaz disfrutatu eta gozaraztea, emakumeak eta feministak ikusiak eta entzunak izatea, aldarrikapenak plazaratzeko espazioak okupatu eta erabiltzea….

IKASTAROA

## 04 EMAKUMEENTZAKO BERTSO ESKOLA

**Irakaslea:** Nerea Elustondo Plazaola
**Noiz:** asteartetan (8 saio) / **Ordutegia:** 19:00-20:30
**Hizkuntza:** euskara / **Matrikula:** 30€/35€

*Bertso eskola maiz ikusten da / hain urruna, hain handia …*
*baina ez zara lehenengoa /ez zara aitzindaria …*
*lotsak etxean utzi ditzazun / ailegatu da aldia,*
*nahiz umoretik dibertitzea / izan helburu garbia …*
*baietz atera zure barruan / dagoen bertsolaria!*

DOINUA: "hementxe gaude hementxe gaude"

IKASTAROA

## 05 SEXUALITATEARI ETA EROTISMOARI BURUZ

**Irakaslea:** Pepa Bojó Ballester
**Noiz:** astearteetan (8 saio) / **Ordutegia:** 18:00-20:00
**Hizkuntza:** gaztelania / **Matrikula:** 30€/35€

**Ikastaroaren deskribapena:**
Gure gorputzaz ikastea, gure erotika ulertzea, emozioak iratzartzea, zentzuez eta nahiez bat egitea… Bizipeneko tailer bat proposatzen dizugu, gure gorputzarekin, gure nahiarekin, gure emozioekin bat egiteko ingurune bat, norberarenganako maitasuna indartzeko eta gure buruarekin eta gainerako pertsonekin tratu oneko harremanak egiten ikasteko.

TAILERRA

## 06 BIDEOAK MUNTATU ETA EDITATZEKO IKASTAROA

**Irakaslea:** Laia Bedos Bonaterra
**Noiz:** ostegunetan (4 saio) / **Hasiera:** azaroaren 8an
**Ordutegia:** 17:00-19:00 / **Hizkuntza:** gaztelania
**Matrikula:** 20€/23€

**Tailerraren deskribapena:**
Edizio digitaleko tailerra, erarik errazenean eta etxean lehenengo bideo-muntaiak egiten ikasteko da. Argazki, kartel, testu edo bideo zatiez, iraupen laburreko bere bideoa egingo du norberak. Egoeraz baliaturik, emakumeak animatzea, bideo bidez euren historiak konta ditzaten.
*Norberak bere ordenagailu eramangarria ekarri behar du.*

TAILERRA

## 07 DRAG KING TAILERRA

**Irakaslea:** Belen Nevado Méndez / **Noiz:** azaroaren 10ean
**Ordutegia:** 10:00-14:00 eta 16:00-20:00
**Hizkuntza:** gaztelania / **Matrikula:** 15€/17€

**Tailerraren deskribapena:**
Tailerraren helburu orokorra da gizonezkoek oraingo sistema patriarkalean betetzen duten lekua esperimentatzea, liberazio egintza moduan, eta horren ondorioz, emakumeak jabetzea.
Pairatzen dugun maskulinitate hegemoniko horretara iristeko aukera dugu, baina era berean, ukatu egin zaigun, parodiatzen dugun, gozatzen dugun eta zalantzan jartzen dugun horretara iristeko aukera ere badugu. Gure feminitatea desnaturalizatzen dugu (batzuetan berriro deskubritzen dugu) eta gizontasunari lotutako sentsazio eta jarrerak sentitzen ditugu.
Maskulinitate hegemonikoa performatzeko onurak gozatzen ditugu, baina oztopoak ere bai…

TAILERRA

## 08 INDARKERIA SEXISTARI AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK

**Irakasleak:** Edurne Epelde Pagola eta Leire Ibarguren Agirre
**Noiz:** azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean
**Ordutegia:** 16:00-20:00 (azaroaren 30ean) eta 10:00-14:00 (abenduaren 1ean)
**Hizkuntza:** euskara / **Matrikula:** 15€/17€

**Tailerraren deskribapena:**
Indarkeria sexistaren dimentsioak aztertu eta horien inguruan hausnartzea da tailerraren helburua. Indarkeria-egoerak, erasoen identifikazioa eta indarkeriaren definizioa taldean lantzea da asmoa.
Horrez gain, emakumeok indarkeriarekiko ditugun bizipenak konpartitzea, eta erantzun, alternatiba eta estrategietan sakontzeko asmoa ere badaukagu. Bai bakarka martxan jarri beharrekoak, bai eta kolektiboki eraiki beharreko erantzun dinamiketan aukerak pentsatzea ere.
Finean, autodefentsa feministaz aritzea eta hausnartzea, eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea da tailerraren erronka.

FOROA

## 09 KAFE-TERTULIA ETA POTEO FEMINISTA

**Noiz:**abenduaren 14an
**Gaia:** "Arrasaten, femisnimoaren erronkak zehazten"
**Ordua:** 18:00etan
**Non:** Kultur Ateko Areto Nagusian
(Aurrez izena eman behar da Emakume Txokoan)

**Foroaren deskribapena:**
Iazko urrian, Arrasateko eta inguru emakumeak mahaiaren bueltan elkartu ginen feminismoaren inguruko iritziak, esperientziak, zalantzak, eta abar partekatzeko. Foro honetan zerbait garbi gelditu bazen, feminismoa lantzen jarraitu behar dugula izan zen. Abiapuntua horixe izanik, gaur, hemen eta orain feminismoaren erronkak zein diren zehazten eta horiek gauzatzen ahalegintzea izango da kafe-tertulia honen helburua, emakumeon agenda feminista zehaztea, finean.

Debateari amaiera emateko, zer hobe, poteo feminista bat baino!!

arrasateko jabetze eskola

emakume txokoa

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gipuzkoako Foru Aldundia

## ESCUELA DE EMPODERAMIENTO PARA MUJERES

La Escuela de Empoderamiento de Arrasate para mujeres también viene fuerte este mes de septiembre de 2012, con ganas.

Nuestro reto, además de responder a preocupaciones e intereses de las mujeres del municipio, es trabajar una mirada crítica y reflexionar sobre nuestra realidad personal, social y política. La Escuela de Empoderamiento pretende ofrecer también la oportunidad de percatarse de la aportación realizada por el feminismo y de tener conocimiento de todo ello.

Esta escuela quiere ofrecer recursos para incidir en los diferentes ámbitos sociales, a fin de fortalecer su participación sociopolítica.

Hay que señalar que nuestras puertas están abiertas de par en par para todas las mujeres de nuestro municipio y nuestra comarca.
¡Ven y experiméntalo!

## Información:

**Plazo de inscripción:** del 24 al 28 de septiembre. Los cursos y talleres comenzaran la primera semana de octubre (salvo otras indicaciones para cursos/talleres que empiecen más tarde).
Todos los cursos se realizarán en Emakume Txokoa, salvo que se indique de otra manera.
**Matrícula:** Plazas limitadas. Para formalizar la inscripción será necesario rellenar un formulario en Emakume Txokoa.
**Ingreso:** en el nº de cuenta que se facilitará al inscribirse en Emakume Txokoa. Una vez abonado el importe, en caso de baja, no se hará devolución del mismo.
**Horario para la inscripción:** de lunes a jueves: mañanas 11:00 - 13:30 / Tardes 15:00- 19:00 / Viernes: mañanas 10:00 - 14:00
**Servicio de guardería:** las actividades contarán con un servicio gratuito de cuidado de niñas y niños, avisando con antelación.
**Más información** en Emakume Txokoa. **Teléfono:** 943 79 41 39
**emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net**
**www.emakumetxokoa.com**

CURSO

## 01 CURSO DE CÓMICS Y EMPODERAMIENTO

### liberando su arte, humor y propia expresión....

**Formadora:** Ainara Azpiazu Aduriz "Axpi"
**Día:** jueves (8 sesiones) / **Horario:** 19:00-20:30
**Idioma:** euskera / **Matrícula:** 30€/35€

**Descripción del curso:**
El objeto del presente curso consiste en utilizar el cómic como instrumento de expresión de nuestro cuerpo. Por un lado, saboreamos los referentes de los trabajos desarrollados por las mujeres. Por otro, el taller será ante todo práctico, para poder contar nuestra historias a nuestra manera, liberando nuestro interior y gozando de las posibilidades de apertura que ofrece el dibujo.
Dibujo, pintura, humor, … *No es preciso saber dibujar, sino que sea de tu gusto, ¡¡cualquiera puede aprender a dibujar!!! Si quieres ver el blog de Ainara Azpiazu, entra en (www.ainaraxpi.blogspot.com).*

CURSO

## 02 CURSO DE ESCRITURA

**Formadora:** Iratxe Retolaza Gutierrez
**Día:** miércoles (8 sesiones) / **Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** euskera / **Matrícula:** 30€/35€

**Descripción del curso:**
Los ejercicios literarios y creativos son una alternativa apropiada para conocernos, desarrollarnos y remover nuestro interior.

Para sumergirnos en la creatividad literaria, realizaremos dos pasos. Primero, daremos lectura e investigaremos los diferentes trabajos creativos desarrollados durante la historia por las mujeres escritoras vascas, para poder disponer de varios trabajos literarios representativos, y asimismo para adiestrarnos en nuestra actividad de lectoras. Segundo, propondremos varios ejercicios creativos, en las diferentes sesiones.

CURSO

## 03 BATUKADA FEMINISTA

**Formadoras:** Ainara Sarasketa Alberdi y Arantxa Vicedo Rubio
**Comienzo:** 20 de octubre, sábado (8 sesiones)
**Horario:** 11:30-14:00
**Idioma:** euskera y castellano / **Matrícula:** 30€/35€

**Descripción del curso:**
Aparte de aprender a manejar diferentes instrumentos, el objetivo es gozar, relacionarnos entre las mujeres, aprender a trabajar en grupo y entre nosotras, trabajar la imaginación, crear, hacernos con el liderazgo, disfrutar y hacer gozar con la música, que nosotras las mujeres y feministas seamos visibles y oídas, ocupar y utilizar los espacios para difundir nuestras reivindicaciones…

CURSO

## 04 BERTSO-ESKOLA PARA MUJERES

**Formadora:** Nerea Elustondo Plazaola
**Día:** martes (8 sesiones) / **Horario:**19:00-20:30
**Idioma:** euskera / **Matrícula:** 30€/35€

*Bertso eskola maiz ikusten da / hain urruna, hain handia …*
*baina ez zara lehenengoa /ez zara aitzindaria …*
*lotsak etxean utzi ditzazun / ailegatu da aldia,*
*nahiz umoretik dibertitzea / izan helburu garbia …*
*baietz atera zure barruan / dagoen bertsolaria!*
TONO: "hementxe gaude hementxe gaude"

CURSO

## 05 SEXUALIDAD Y EROTISMO PARA MUJERES

**Formadora:** Pepa Bojó Ballester
**Día:** martes (8 sesiones) / **Horario:** 18:00-20:00
**Idioma:** castellano / **Matrícula:** 30€/35€

**Descripción del curso:**
Aprender de nuestro cuerpo, comprender nuestra erótica, despertar emociones, conectarnos con nuestros sentidos y nuestros deseos... Te proponemos un taller vivencial, un espacio para conectar con nuestro cuerpo, nuestros deseos, nuestras emociones, fortalecer nuestro amor propio y aprender a establecer relaciones de buenos tratos con nosotras mismas y con las demás personas.

TALLER

## 06 MONTAJE Y EDICIÓN DE VIDEOS

**Formadora:** Laia Bedos Bonaterra
**Día:** jueves (4 sesiones) / **Inicio:** 8 de noviembre
**Horario:** 17:00-19:00 / **Idioma:** castellano
**Matrícula:** 20€/23€

**Descripción del taller:**
Taller de edición digital para aprender a realizar uno de tus primeros montajes de vídeo de la forma más simple y casera. Partiendo de fotos, carteles, textos o fragmentos de vídeo cada una realizará su propio vídeo de corta duración. Aprovechando la coyuntura, se animará a las mujeres a que cuenten sus historias mediante vídeos.
*Es necesario que cada cual traiga su propio ordenador portátil.*

TALLER

## 07 TALLER DRAG KING

**Formadora:** Belen Nevado Méndez
**Fecha:** 10 de noviembre / **Horario:** 10:00-14:00 y 16:00-20:00
**Idioma:** castellano / **Matrícula:** 15€/17€

**Descripción del taller:**
El objetivo general del taller consiste en experimentar el lugar que ocupa el género masculino en el actual sistema patriarcal, como un acto de liberación y en consecuencia de empoderamiento de la mujer.
Nos permitimos acceder a esa masculinidad hegemónica que sufrimos, pero que a la vez nos ha sido vetada, la parodiamos, la disfrutamos, la cuestionamos.
Desnaturalizamos nuestra feminidad y experimentamos sensaciones y actitudes asociadas a la virilidad.
Saboreamos las ventajas de performar la masculinidad hegemónica pero también las desventajas…

TALLER

## 08 ESTRATEGIAS PARA AFRONTAR LA VIOLENCIA SEXISTA

**Formadoras:** Edurne Epelde Pagola eta Leire Ibarguren Agirre
**Fechas:** 30 de noviembre y 1 de diciembre
**Horario:** 16:00-20:00 (30 de noviembre) y 10:00-14:00 (1 de diciembre)
**Idioma:** euskera
**Matrícula:** 15€/17€

**Descripción del taller:**
El objeto del taller consiste en analizar las dimensiones de la violencia sexista y reflexionar sobre estas. El propósito es tratar en grupo las situaciones de violencia, identificar las diferentes agresiones y definir la violencia.
Además, compartiremos las vivencias que tenemos las mujeres con la violencia, y también pretendemos profundizar en las respuestas, alternativas y estrategias.
Y asimismo, ahondaremos en aquellas alternativas a poner en marcha de forma individual, y también en las dinámicas de respuesta alternativas a construir colectivamente.
En último término, el reto del taller consiste en hablar y reflexionar sobre la autodefensa feminista y trabajar las estrategias para hacer frente a las agresiones.

FORO

## 09 CAFÉ TERTULIA Y POTEO FEMINISTA

**Fecha:** 14 de diciembre
**Tema:** "Concretando los retos del feminismo en Arrasate"
**Hora:** 18:00
**Lugar:** salón de actos de Kultur Ate
(Para participar hay que inscribirse con antelación en Emakume Txokoa)

**Descripción del foro:**
Durante el pasado mes de octubre, las mujeres de Arrasate y mujeres de nuestro entorno nos juntamos alrededor de una mesa para compartir opiniones, experiencias, dudas, etc. relacionadas con el feminismo. Si algo quedó claro en este foro, fue que tenemos que continuar profundizando en el feminismo. Siendo este el punto de partida, en la actualidad, el objeto de la presente tertulia de café será intentar concretar los retos actuales del feminismo y materializarlos; al fin y al cabo, concretar la agenda feminista de nosotras, las mujeres.

Para finalizar el debate, nada mejor que un poteo feminista.